


▲ Elkarrizketa

E S P E

GURIANeko ESPEKIN KONTU-KONTARI



Barriztu
aurreko
tabernan
Espe,
Eduardo
eta
Enkarna.

Gurianeko Espek makifiatxo bat urtian mostradore ostian izandako gorabeheren barri emun dosku kafe goxo baten inguruan.

- Noiztik tabernari lanetan?

Ezkondu nintzanean gizonak esan nontan «tabernia gustaitten xatzu?» eta nik ba, «beste batzuk egitten daueña neuk be egingo dot» eta hartan hasi nintzen, 55 urtian.

- Gustokua dozu ofizio hori?

Bai, ratu batzuk pasaitten dira

txarrak, baiña jeneralian gustau izan xat, bizitteko asko lagundu dost, eta alargundu nintzanean, ba, askoz gehiago. Nahiz eta kantsaua izan, nere dibertimendua izan da, taberniak asko bete nau.

- Baiña, esklabua be izango da ba...

Esklabua bai; enterradore zaharrak behin esan nontan

«zuk nere andriak baino bost duro gehiago izango duzu baiña harek beste eguzki hartu barik hilgo zara zu» eta hori egixa da, ze urte askuan, asteko egun danak igualak ziran, gabonetako juntaitten giñan affaitteko edo, eta *seakabo*.

Beranduago, gizona gaixoketan hasi zanian, hasi giñan egun bat ixten, eta horrek libertade pittin bat emuten otzun.

- Orain taberniak ixten dotzu zeuretako denborarik?

Bai, seme-alabak egitten dittue ordu zail danak eta ni behin zortzirak ezker, libre egoten naiz.

- Zer egitten dozu orduan? Zine-klub-a dauenian zinera eta bestela etxera be gustora faten naiz. Sarritan lagunak be esaten dostai urteteko, baiña ez dot eukitten larregiko zerik ze tabernan egunero

egoten gara lagunduta. Bestela, aparteko gauzarik eztot egitten, tabernia eta etxia, eta biajetxon bat noizian behin. Gero, taberna barik eztakitt asmauko doten eta hasi naiz jubilañorako gertaketan: teatroa fan, irakurri, izan be gazte denporan asko gustau izan xat irakurtia.

- Zuk hemen diharduzunetik asko aldatu da tabernako girua?

Nik uste dot soziedadiak dagozen denboratik hona aldatu dala gehixen. Lehen hemen ixa arratsalde danian kartetan egitten ebeñiak baegozen... orain eztakogu halakorik. Orain pittin bat asentatautako jendiak, partidatxua botateko eta soziedadetan dako bere txokua.

- Eta edari kontutan


ARAMBURU HALTZARIAK

• ESTILO GUZTITAKO HALTZARIAK
• LANPARAK • TAPIZAK • KORTINAK

Tfnoak. 78 11 60 - 78 05 73
Zaharra, 21 • Kalebarria, 11 • A. Lizaur, 7
OÑATI

JON ARGAZKIGINTZA

Kale-Barria, 28 behea
Tfnoa. 78 24 81 • OÑATI



GUZTIZ-EDER

ARANTZAZU TXINTXURRETA
ESTETIKA ETA MASAJEA
BIO-COL TRATAMENDUAK

Etxaluze Etxea - Kale barria, 54-1º F
Tfnoa. 78 01 46
OÑATI

ONGI-ETORRI taberna



Gau giro ezin
hobe!

LEIRE

KIROLAK eta
HAUR MODA

San Lorenzo, 120
Tfnoak. 78 34 55 - 78 17 35
OÑATI

ARAMBURU

PINTURA OROKORREAN
GARBIDENDA

PAPER MARGOTUAK
KOADROETAKO MARKO DENDA

Kale Zaharra, 47 - OÑATI - Tfnoa. 78 19 99



zenbateraino aldatu da?

Lehen gehixen bat ardaue edaten zan, orain akaso zerbezia lartxo, baiña gaztiak hobeto edaten daue, zumuak, ura, eta halakuak be bai, askotan gehixago gastauta. Noiz pagau da ur botilla txiki bat hogeituro? eta hori oraingotxia da, ze, orain hamar bat urte edo kuba-libria pipermiñakin eta horreik edaten ziran.

- Musikia eta telebisiñua be oraingo gauzak dira...

Hor be aldaketa gogorra egon da. Lehen radixua bakarrik, partiduak eta entzuteko, orain, musika bariko taberna baten zerbait inportantia falta dela esan leike. Eta, telebisiñua ipinteko gure gizonak intento bat jo baeben be, tabernia txikiña dalako edo, guk geuk eztakogu. Gaiñera neuri behintzat, kuadrillakin konbersaziñua, mahixan pittin bat egotia... gustaitten xat eta telebisiñuak hori kendu egitten dau.

- Eta kantuan egitteko ohitturia?

Hori be lehengo gauzia. Lehen ferixa egunetan eta tabernan kafetxo bat hartuaz, baziran kuadrilla batzuk kantuan egitten ebeñiak, eta ondo asko gainera; orain be Oñatin badira kantore onak, koral ederra dakogu hemen, akaso honeik be euren reünixotan eta egingo daue, baiña aspaldixan etxat suertau kuadrilla giruan tabernan kantuan entzuterik.

- «Se prohibe cantar» kartelik ez da egon?

Bai, baiña gure gizonak sarritan esaten eben «se prohibe cantar mal» ipiñi bihar zala.

- Gaur egungo gaztiak edan barik dibertitten badakixe ala beste aukerarik ezian joten daue tabernara?

Nik uste dot tabernan dakogunak dibertitten pittin bat lagunketan dauela. Baiña ezta gaztien kontua bakarrik, edade danetakuak dakogu ohittura hori, nagusixak be urtetan dauenian taberna inguruan mobitten dira. Hori kultura moduan dakogu sartuta hemen, gauza danak egitten dira mahaixan inguruan edo kopa batzun inguruan; gauzak aldaketako urtiak biharko dira. Dana dala, sarritan esaten dostai ni enaizela beranduan ibiltten kalia, baiña nik ikusten doten tamaiñan behintzat, lehen baiño hobeto dabil jentia.

- Tabernia bakarrik edarixak saltzeko ala beste zerbaitetarako lekua be bai?

Gu beti saiatu gara ahal dogun tamaiñan zerbizio bat emuten, batez be deporte maillan halabe, lehen gure gizona eta orain Juanma oso zaliak izan direnez, beti ibilli dira zerbaitetan, eta bestela be, milla gauzatxotan, errifak eta, egiten dogu ahalegiña. Nik betik esan dot fabore egin leikien lekuan gagozela eta eztost bapebe miñik emuten hori egittiak.

- Baiña danetik entzutia eta aguantau biharra be tokauko xatzue?

Bai, danetik izaten da, baiña pixuan ipiñi ezkerro, momentu onak gehixago dakogu, baiña bai, noizian behin tokaitten dira aguantau eta entzun biharra be. Akordaitten naiz goiz baten, Don Jose Maria Agirrebaltzategi elizara zixoiala nere gizonak urten eta esan otzala «zu bazoiaz elizara egixak esango dotzuelakotan, baiña egixak guri esaten doskue tabernan, zueiri hain goiz eztotzue esango» eta egi-egixa da hori.

- Urte sasoi guztietan lana igual egitten da?

Hemen pasaitten da agostuan bakaziñuak dirala eta gero setienbre eta otubrian jai artian nahastuta gabitzela, eta gero bajue haundixa igarten da. Izan be, beste gauza batzuk be badagoz orain, neguan eskiattera faten dirala, polideportubua dala, beste entretenimendu batzuk be badauz, eta nik uste dot jentia danetik pittin bat egitten dauela.

- Herriko girua aldatu egin dala esan gura dozu?

Bai, polideportubua asko egin dau, onerako izan da. Makiña bat bider ikusi izan dogu pelotako responsabliak eta beti gora begira, Korpus egunian ipiñi partidu bat eta beti bilddurrez noiz eurixa egingo, eta, gauza horreiri urtenbidia emun xate. Badakitzu zenbait jende ikusten dan?,

RI

agunduta, gauzarik bernia eta bat noizian erna barik doten eta aziñorako trora fan, be gazte tau izan xat

asko ako

oziedadiak atik hona en. Lehen alde danian ebeñiak eztakogu pittin bat jendiak, ateko eta ako bere

tan

DER
URRETA
SAJEA
NDUAK
a, 54-1º F

RU
O DENDA
9 99



**MEKANIZATUAN
ESPEZIALISTAK**




• MEKANIZATUETAN ESPEZIALISTAK

• FRESADORAK, TORNOAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

CNC-ren bidez era guztietako piezen hornidura

HIRUHAITZ, S.COOP. LTDA.- Berezano Industrialdea - Tfnoa. 78 19 11 - Faxa 78 29 90 - OÑATI



GELATZV

- Eraikuntzarako materialak
- Axuleiak eta zeramikazko pabimentuak
- Onduline

**ERAKUSKETA ETA
SALMENTA**

GELATZU

Mendiko-kale, 8-behea
Tfnoa. 78 15 51
OÑATI